



249. zenbakia

• Martxo 2025 •

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



Nire bila jin hintzen

Itxaro Borda (Itzalen tektonika, Susa, 2024)



Nire bila jin hintzen. Ilunpea zunan.
Appa hi! aplikazioko lehen galdetegiari
Arrapostu zuzenak eman hizkiola
Erran hidan.

Ohean odol tatxa bi. Ilunpea zunan.
Maria Nicolauren sukalde-errezeta bat
Egin ninan afaltzeko, txibia saltsan
Eta kale aza egosia.

Mihise almidoituak. Ilunpea zunan.
Hire gorputza ferekatzen ninan amodio
Eskasez, mapetatik ezabatu hiri bat
Izan bahintz bezala.

Ez nekinan maitatzen. Ilunpea zunan.
Larruak esku ahur kolpatua erretzen zinan
Eta kolibriaren lau malkoak ez zitunan
Aski sutearen itzaltzeko.

Irailaren 16tik aurrera

Esan Erran irratiko denboraldi berria martxan!

Astelehenetik ostegunera, zuzenean, goizeko 10:00etan:

EGUN ERO magazina

(13:30ean eta 20:00etan errepikapena)

Ostiraletan, goizeko 10:00etan, txandakatuz:

EGUN ERO KANTUZ eta MEMORIAREN TXOKOA

(13:30ean eta 20:00etan errepikapena)

Ostegunetan, 19:00etan,

BROMA GUTXI

(larunbatetan 20:00etan errepikapena)

Eta, gainerakoan, Arroza sareko irratisaioak eta Zebrabidea magazina, Euskalerrria irratia, Naiz irratia, puntako musika, podcast desberdinak...

PIZTU ESAN ERRAN!

FM-ko107.9 edo

amezti.eus/irratia/zuzeneko



ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok Bat Elkarte, Patxi Irurzun eta Alazne Fdez. de Muniain.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez.

TIRADA

1.700 ale.

INPRIMATEGIA

Gertu.

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa.

AZALEKO ARGAZKIA

Txatxoak Lantzen, ostatutik Miel-Otxinekin atera aurretik.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira martxoaren 10ean bidalia.

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *Emakume migratuak*

07

Ingurumena. *Klima-aldaketa, unitate didaktikoa*

08

Kronika. *Denok Bat jubilatuen elkarte*

10

Albisteak.

14

Elkarrizketa. *Mikel Gerendiain, Mauro*

16

Herrian bertan. *Shiatsu Lantzen, Izen*



20

Gure hizkera. *Alormakur*

22

Aspaldiko kontuak. *Ilarregiarra hil zuten (XI)*

26

Zer ikusi. *amezti.eus-en*

27

Ardo freskotik. *Azpiratu gaituzte*

28

Kultura. *Karol Tornaria, zinema makillajea*

30

Musika. *Skabidean*

32

Zer irakurri. *Ultzamako Liburutegia*

34

Jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak. *Ilbeltza*



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Bizitza ikusezinak ikustarazteko sareak ehuntzen

Ultzamako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Berdintasun Batzordeak antolatuta, 'Sareak ehuntzen' egitasmoa abiatu da eskualdean. Emakumezko migratuen arteko harremanak sustatzea da proiektuaren helburu nagusia. Otsailean egin duten lehen saioa inguruan ditugun baliabideen gaineko informazioa emateko probestu dute.

11 emakumezko eman zuten izena lehen saiorako, eta bajaren bat medio egon arren, bederatzik hartu zuten parte azkenean. Pozik agertu dira erantzunarekin Miren Uhartek gizarte hezitzailea eta Amaia Paz Vallejo berdintasun teknikaria. "Arrakastatsua izan zen saioa, bai parte hartzearen aldetik, baina baita edukiari begira ere, guztiek hartu zuten parte gutxi-gehiago", diote. Askotan errealitate ezezaguna izan arren, eskualdeko emakumezko migratuei proiekturako gonbidapena gutun bidez egin ziotenean 70 gutunetik gora bidali zituzten herri desberdinetara. "Jendeari aipatzen diogunean 70 gutun bidali genituela, harrituta gelditzen da kopururekin, askotan ezkutuan dagoen errealitatea delako emakumezko migratuen", gehitu dute.

Emakumezko eta migratu, bi aldiz zaugarri

Oraingo hau ez da Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatetik horrelako saio bat antolatu den lehen aldia izan. Izan ere, udan antzeko helburua izan zuten pare bat saio eskaini ziren, eta oraingo honetan, proiektu hau berrartzeko bultzada bat eman nahi izan dute. Gainera, egunerokotasunean migratutako pertsonekin harremana badute eta informazioa eta baliabideak eskaintzen dizkiete. "Prozesu migratorioa bizi izan duten pertsonak zaugarritasun egoeran egon daitezke, baina, gainera, zaugarritasun egoera hori

areagotu egiten da emakumezkoen kasuan. Izan ere, arlo soziala babes faktorea izan ohi da zaugarritasunaren aurrean, eta alde hori normalki gizonezkoek landuagoa izaten dute, jasotzen dugun sozializazioagatik. Horregatik, emakumezkoek alor sozial hori landu ahal izateko baliabideak eskaintzea interesgarria da, ahalduntzeari begira espazio bat eskaintzeko eta haien artean sarea egiteko", azaldu du Paz Vallejok.

Hego eta Erdialdeko Ameriketako zenbait herrialdetan eta Marokon jatorria duten emakumezkoak izan ziren lehen saioan parte hartu zu-

tenak, eta ez zuten lehenagotik elkarezagutzen. "Gai honetaz hitz egitean, askotan migratuen jatorriari erreparatzen diogu, baina gurea bezalako eskualde batean, helmugak ere bere garrantzia du. Izan ere, oso dispersatuta daude: bat Iraizotzen, bestea Berueten, hurrena Olaguen... hemengo arazoa da askotan herrietan bakarrik daudela", nabarmendu du Uhartek. Elkartzeko eta elkar ezagutzeko nahia eta borondatea edukita ere, errealitatea da zailtasun handiak dituztela horretarako. Distantzia dela, lan ordutegi desberdinak direla, garraio publiko falta dela... "Badakigu askorentzat zaila dela Gizarte



Amaia Paz Vallejo eta Miren Uhartek, lehen saioa kartelarekin



Zerbitzuetara etortzea bera ere, hor erronka handia dugu”, gehitu dute.

Profil anitza

Migrazio prozesu, baldintza eta profil desberdinak dituzten emakumezkoak izan ziren 'Sareak ehuntzen' saioaren lehen atalean. Zenbait faktorek migrazio prozesuak erraztu edo zaildu egin ditzakete, jatorrizko herrialdearekin Espainiako estatuak izan ditzakeen hiztarmen desberdinek kasu. “Europar Batasuneko beste herrialderen batetik etorri direnek, printzipioz, erraztasun gehiago izan ditzakete, edo Argentinaren kasuan, gurasoak edo aiton-amonak herritartasun espainiarra baldin bazuten... badira beste zenbait herrialde, dokumentazioa eta paperak lortzeari begira zailtasun handiagoak dituztenak”, aipatu dute.

Jatorriarena ez ezik, hizkuntzaren kontua ere zailtasun gehigarri bat izan daitekeela nabarmendu dute Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko langileek. Izan ere, gaztelera

menperatzen ez dutenen kasuan, komunikatzeko zailtasuna bera oztopo izan ohi da administrazioarekin nahiz inguruarekin harremanak izaterakoan. Norberaren egoerak eta bizipen pertsonalek ere motxilarri zama handia gehitu dakiok. “Badira haien herrialdeetan egoera latzak bizi izan dituztenak, edo seme-alabak han utzi behar izan dituztenak... tira, faktore askok eragiten dute bakoitzaren egoeran”, diote.

Bizipen eta ibilbide pertsonal horiei, noski, gurean jasan behar izaten dituzten traba eta zapalkuntza administratiboak erantsi behar zaizkie. Izan ere, gutxiengoa da hasieratik bertan bizitzeko eta lan egiteko paperekin datorrena. Gehiengoaren kasuan, prozesu burokratiko luzea pasatu behar izaten dute dokumentazioa lortzeko. “Egoeraren arabera aldatzen da, baina printzipioz, pertsona bat hona iristean egin beharreko lehenengo gauza erroldatzea da, erroldak asko markatu dezake. Momentu honetan, hiru urte egin beharra dituzte Espainiako esta-

tuan erroldatuta segidan eta etenik gabe. Behin hori lortuta, lan eskaintza finko eta erreal bat lortu beharra dute paperak tramitatzen hasi ahal izateko”, azaldu du Uhartek.

Zer esan nahi du horrek? Bada, duintasun eta eskubide minimo batzuekin bizi eta lan egin ahal izateko urte mordoxka bat pasatu beharra dituztela, esperoan. Eta, esperoan diogunean, esan nahi dugu ofizialki lan egiteko aukerarik gabe, etxebizitza lortzeko zailtasunekin, kontu korrante bat ezin irekita, gidabaimena edo dirulaguntza batzuk eskuratzeko ezintasunarekin...

Ikusezintasuna eta estigmatizazioa borrokatzen

Orokorrean, pertsona migratuen kasuan, ohikoagoa izaten da hirietan gelditzea, landa eremuko herri txiki batera joatea baino, mugitzeko aukera eta baliabide gehiago dituztelako hirian. “Saioan batek aipatu zuenez, ez datoz hona haiek aukeratu dutelako, bertan 'lan' bat suertatu zaielako baizik, bestela ez lirateke etorriko. Izan ere, aipa-

Hilabetearen behin, ahaldunderako hitzordua

Sareak ehuntzen eta elkar ezagutzen segitzeko, hilabetearen behin saio bat egitea da egitasmoaren helburua. Martxoaren 22an izanen da bigarren saioa, larunbatarekin, goizeko 10:30etik 12:30era, Larraintzako Zentro Zibikoan. “Paseo bat emateko elkartzea da ideia, harremanak lantzen segitzeko, ikusteko zer nahi duten, zer eskaini daitekeen Gizarte Zerbitzuetatik...”. Hemendik aurrerako saioak larunbat goizetan egitea planteatu dute momentuz, askorentzat egun egokiena delakoan.

Horrez gain, eskualdeko emakume migratuen whatsapp talde bat ere sortu dute, elkarren arteko kontaktu minimo hori bermatzeko. “Batek etxebizitza alokairu baten berri izaten badu, edo lan eskaintza batena, bada, hortik zabaldu dezakete”, diote.





tzen dutenez, hemen gidabaimenik ez baduzu, eta dokumentaziorik gabe daudenek ezin dute eduki, ez duzu mugitzeko aukerarik. Hirian, B mailako lan bat izanda ere, garraio publikoa duzu”, diote. Etorkizunera begira identifikatu duten erronka nagusietakoa da eskualdean bertan mugitzeko eta Iruñera joan-etorriak egiteko garraio publikoa garatzea.

Gure eskualdean topatzen dituzten zailtasunen artean, garraio publikoaren faltarekin batera etxebizitza lortzeko dituzten zailtasunena ere atera zen. “Saioan oso presen-

te egon zen gaia da etxebizitzarena. Orokorrean jendearentzat zaila bada inguru honetan etxebizitza lortzea, bada, migratuen kasuan zailtasun hori asko handitzen da. Aipatzen zuten jabeek askotan diru-sarrerara altuak eskatzen dizkietela alokairuan jarri ahal izateko”. Hirian ere arazo hori badago, baina teknikariek susmoa dute landa eremuaren kasuan, eskaintza ere murriztagoa izanda, are zailagoa dela bizitzeko toki duina lortzea.

Eskualdeko herritarren partetik jasotako harreraz galdetuta, ikusezintasunaren eta estigmatizazioa-

ren gaia nabarmendu zuten saioan, teknikariek diotenez. “Bereziki aipatu zutena da ezezagunak direla, etxe batean lanean ari badira hor daude, baina ez dutela bestelako presentziarik, jendeak ez dituela ezagutzen”, dio Uhartek. Izan ere, zaintza lanetan dihardute eskualdean bizi diren emakume migratu askok, horietako zenbait interna bezala. Ikusezintasunarekin batera, aurreiritziek eta estigmatizazioak ere ez du haien egoera xamurtzen. “Garrantzitsua da herritarrok estigmatizazioa alde batera utzi eta harrera on bat egitea hona datozenei. Azkenean, hemengo biztanleek ingurua oso ongi ezagutzen dute, zonaldea, herriak, istorioak, bizimodua... eta asko lagundu dezakete”, gaineratu dute. Eta, alderantziz ere bai: gure artera datozenek ekartzen dutena hartzeko prestutasuna izatea, haien ekarpenari balioa ematea.



Alejandra Andres. Argentina-Aizarotz

“Ekimen interesgarria da, gure artean ezagutzeko eta elkar babestu eta laguntzeko”

Duela 20 urte inguru iritsi zen Espainiako estatura Alejandra Andres argentinarra, korrallitoaren garaian. “Herrialdea krisi ekonomiko sakonean sartu zen, eta horregatik erabaki genuen argentinara askok eta askok handik ateratzea”, dio. Ahizpa Andaluzian zuen aurretik, eta berarengana joan zen Andres hasieran. Azpimarratzen duenez, gaurkoarekin alderatuta, administrazioak askoz zailtasun gutxiago jartzen zituen paperak lortzerakoan. “Garai hartako politika bestelakoa zen, erresidentzia-txartela lortzea nahiko erraza zen. Lan kontratu bat lortu eta sei hilabetera iristen zitzaizun”, dio.

Zailtasunen artean, herrialdea eta familia atzean utzi behar izatea eta toki berri batera egokitzearena aipatzen ditu Andresek. “Hasieran zaila da, ez da zure lurraldea, familia eta jendea ikaragarri sumatzen duzu faltan... baina

tira, zortea ere izan nuen”, dio. Nabarmentzen duenez, jatorriaren eta beste zenbait faktoreren arabera, oso desberdin jasotzen dira migratuak. “Mailakatze moduko bat badago horretan ere, eta nik zentzu horretan nahiko erraz izan nuen kontua”, dio.

Sareak ehuntzen egitasmoan zergatik parte hartzen duen galdetuta, honakoa erantzun du. “Gutuna jaso nuen ideia oso ona iruditu zitzaidan. Nik urte asko daromatzat hemen eta hemen dut nire bizitza egina, baina iritsi berria den norbait topatzen dudanean ni ailegatu nintzen garaiaz gogoratzen naiz. Uste dut elkarri lagundu diezaiokegula, eta elkar ezagutzea ere interesgarria dela. Emakumezko migratuok gure artean hitz egiteko, barrenak hustutzeko eta komunikazio sareak lantzeko lagungarria da”.



Ba al zenekien...?

Iosu Alfaro ingurumen hezitzaileak eta Etsaingo (Anue) herritarrak hilero *Adarra Jotzen* ingurumen atala gidatzen du Esan Erran irratiko *Egun Ero* irratsaioan. Azkeneko kolaborazioan klima-aldaketari buruzko unitate didaktiko bat eraman zuen, irratiko esatariok erantzunak asmatzeko gai ginen ikusteko. Irakurleok, zuek ere probatu nahi al duzue?

Sei galdera dira eta aukeran dau-den hiru erantzunen artean zuzena zein den asmatu behar da.

Bigarren hezkuntzako ikasleei zuzendu ohi zaien unitate didaktikoaren zati bat ekarri dugu honera.

Hala ere, lasai egon, erantzun zuzenak asmatzea baino garrantzitsuagoa da atera dezakegun hausnarketa. Hemen dituzue galderak, erantzunak jakin nahi badituzue Esan Erran irratiko kolaborazioa entzun beharko duzue, orri hone-tan duzuen QR-aren bitartez edo amezti.eus/irratia/ weborrian.

1 CO₂-a da gehien isurtzen dugun berotegi-efektuko gasa (BEG), eta atmosferan duen kontzentrazioa duela ... urtetatik hona lortzen ez zen mailan dago gaur egun.

- a) gutxi gorabehera duela 200 urtetik hona
- b) 5.000 bat urtetik hona
- c) 4,1-4,5 milioi urtetik hona

2 Lurreko atmosferak hainbeste CO₂ izan zuen azkenaldian, ozeanoen maila gaur egungoa baino ... zen.

- a) baino 5-25 metro altuagoa
- b) baino 2 metro baxuagoa
- c) bezalakoa

3 Itsas mailak egin du gora ... 1900etik.

- a) 10 cm baino apur bat gehiago
- b) 10 mm inguru
- c) 2 mm

4 Industria Iraultza hasi zene-tik, XVIII. mendean, gizate-riak atmosferako CO₂ kontzen-trazioa ... handitu du.

- a) % 2
- b) % 20
- c) % 50

5 ... herrialdeetan muturreko fenomeno klimatikoek era-

gin handiagoa izaten dute, ohi-koagoak eta bortitzagoak baitira klima-aldaketaren ondorioz, bai bizitzak galtzean, bai zailtasun pertsonaletan.

- a) Klima beroko
- b) Diru-sarrera baxuko
- c) Industrializatutako

6 Europar Batasuneko basoek EBko berotegi-efektuko gas guztien ia ... xurgatzen dute urtero.

- a) % 2
- b) % 10
- c) % 50



▲ Klima aldaketa unitate didaktikoa



Adarra jotzen kolaborazioa entzuteko. Galderen erantzunak emanen zaizkizue.



Unitate didaktikoa osorik.

Txangoak, etxean eta etxetik kanpo

Arkaitz-Orkinen paseoa antolatu zuten Denok Bat jubilatuen elkartetik. Hori etxean, baina kanpora ere atera dira, Lesakara. Gainera, elkarteak aurrera egiteko tarteka lana ere egin behar da eta delegatuen bileraz ere hitz egingen digute kolaborazio honetan.

Azkenekotik gaurkora egindakoari buruz ariko gara kronika honetan. Otsailaren 19an delegatuekin bildu ginen, azken urte hauetan egiten dugun bezala, gure barneko funtzionamenduari erreparasotxo bat emateko eta, batez ere, delegatuen lana eskertzeko, beraiek baitira elkarteari funtzionarazten diotenak. Bazkideei buruz ere hitz egin zen, urtero bezala elkartean nola batzuek utzi eta beste batzuek sartzen diren, ohiturazko berrikuntzan. Datorren alean, datuak zehaztu ondoren, agertuko dugu zenbat garen, generoz eta adinez sailkatutik.

Otsaileko "paseoa"

Hileko azken astelehenean, otsailaren 24an, Arraitz-Orkinen hasi eta Arañotz aldera joan ginen. Bidean, ehunka urte dituen zuhaitza ikusi genuen, talde argazkian agertzen dena, eta mendian, zuhaitz ondoetan eginiko basahuntz handien irudiak ere ikusi genituen. Gero, batzuek Arañotzera igo ondoren, bazkaltzera joan ginen elkarrekin. Giro onean joan ginen, paseoetara gero eta jende gehiago apuntatzen delako. Horregatik, ekintza sendotzen ari dela komentatu genuen.

Otsaileko txangoan Lesaka aldera joan ginen, otsailaren 27an. Herrian autobusak sartzerik ez dagoenez, suhiltzaileen ataritan dagoen geltokian utzi gintuzten. Hara etorri zitzaigun, gure bila, Itsaso, turismo gida. Berarekin ibili ginen, bi taldetan banaturik, euskaraz eta erdaraz, batzuk herria ikusten zuten bitartean, besteek burni museoa bisitatzen. Herriko buelta egin bitartean, gidak erakutsita, herrian gertatutako hainbat istorioez jabetu ginen, nola bi herrixka edo auzo ziren errekarren bi aldeetan eta beren arteko haserreak bukatutzat emateko bakea sinatu zutela eta geroztik zubi gaineko dantza egiten dela festa nagusiei hasiera emanez. Elizara bidean ikusi genuen beraiek "pillirik" deitzen dutena, harrizko zutabea da, gurutze formakoa. Bertan, jendea mihitik zintzilikatzen zuten, Elizatik gaizki

esaka ari zirenak edo ekintza txarrak egin zituztenak. Gaizki portatutako haurrak ere lotzen zituzten, eztiarekin igurtziak, euliek beren gainera etor zitezten, jendearen aztoramenerako.

Tourseko San Martin eliza Nafarroako garrantzitsuenetakotzat jotzen da, eta katedralen tamainako arkitekturaren adibide da. Egia esan, kanpotik zein barrutik harritzen gaitu erretaula bikainak, Carmonako Ama Birjinak eta interes kulturalako organoak.

Bitartean, beste taldeak, turismo bulegoaren ondoan dagoen museoa, aitzinako konbentua, ikusiz



Pillarikari begira, Itsasori adi-adi entzuten



ibili ziren. Jakina denez, Lesaka eta burdina eskutik hartuta joan dira, azken urteetan baina baita gure historian zehar ere. Horren adibideak ageri dira museoan, nola tresnak ala egiteko moduak, erakutsiz



Museoaren atarian ▲

nola lesakarrek baliabide hauek ederki aprobetxatu eta erabili dituztela historian zehar.

Herriaren barna ibiltzeko ere beta izan genuen eta zegoen giro atsegina ikusteko. Ihoteak zirenez, etxe asko ikusten ziren apainduak, azken urteetako ohiturari jarraikiz. Haurrak eskean ere ikusi genituen, beren saskiekin, ostegun gizona zelako. Giroa ederki alaiturik zegoen eta guk jende ezaguna agurtzeko aukera ere izan genuen.

Ondoren, autobusak hartu genituen utzi gintuzten lekuan eta sagardotegira abiatu ginen, Lindurren-bordara. Guretzat prest zaukaten gelan, kupelen ondoan, bazkaldu genuen. Janari nahikoa eta ona. Hasieran txotx entzutean altxatzen ginen eta gero bakoitza bere erara. Nabaria zen, zein gustura egoten garen horrelako egoeratan!!



Hurrengo txangoa Laguardia alde-
ra egingen dugu, aldi berean Vivanco upategia ikusteko. Datorren alean kontatuko dizuegu zertan joan den. Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.



Denok Bat
Jubilatu Elkartea

Pulunpeko zozketan musutruk parte hartzen duten ostatueta batzuk



Urtarrilaren 12an izan zen **Zozketa Mundiala** eta ehundik gora sari banatu ditugu. Haietako batzuk eskualdeko hainbat ostatuk doan eskaintzen dituztenak. Gure hedabideendako **izugarrizko laguntza** da hori. Ostatu guztien publizitatea ez denez ale batean sartzen, apurka-apurka joanen dugu ateratzen.



Ultzamako Benta
Puerto Belate, 31797
Arraitz-Orkin
948 30 51 38
ventadeulzama.com



Udabe Benta
Bentalde, z/g
31869 Udabe
682 114 982
ventaudabe.com



Aizarozko kontzejua jaio da

Otsailaren 7an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean Aizarotz kontzeju izendatzen duen Foru Dekretua eta biharamunean sartu zen indarrean. Orain, 2027ko hurrengo hauteskundeak iritsi bitartean, bost pertsona izendatuko dira kontzejua kudeatzeko.

40 urteetan Nafarroan sortu den lehenengo kontzejua da, foru erkidegoan kontzejuak desagertzea baita joera orokorra. Hala ere, zazpi bat urte zeramatzaten aldaketa administratiboa lortzeko borrokan eta Nafarroako Gobernuaren partetik oztopoak izan dituzte. Orain arte Basaburuko Udalarenak ziren herriaren

eskumenak, baina hemendik aurrera, kontzejuak eskuratuko ditu horietako zenbait.

Kontzejua kudeatuko duten herritarrak izendatzea da falta dena. Nafarroako Gobernuak kontzejuan sartzeko zein baldintza bete behar diren bidaliko dizkie datozen asteetan, eta, horrela, herriak bost pertsona proposatuko ditu hurrengo hauteskundeak iritsi bitarte kontzejua kudeatzeko. Kontzejua sortzeko lanean aritu diren kideetako bat da Eneko Iurramendi, eta 2027 arteko lehen tarte honetan alkate bera izanen dela aurreikusten da.



Baso babesle bat Basaburuan

Obrak otsailean hasi dira. Umeei zuzendua, mitologian oinarritutako, jostaketetarako gune bat izanen da, Oihanzabal basoan, Jauntsaratsen. Metro bateko altuerako egur harresi batek itxia, barruko gune garbian haritzak eta zirkulu erdiak osatuko dituzten oztopo txikiak tartekatuko dira. Guztia basotik bertatik aprobeztatutako material begetalez osatuta egonen da. Lehenengo faserako udalak 49.997,30 euroko diru-laguntza jasoko du. Ez da Jauntsaratsen abian den obra bakarra, izan ere, eguneko zentroa izanen den Txokolateroren etxearen zaharberitze lanak ere aurrera doaz.






Bertan behera gelditu da larunbatERO programa

12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendutako programa izan da larunbatERO, Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatetik eta Euskara Zerbitzutik bultzatu dena. Duela zortzi bat urte jarri zen martxan, eskualdeko gazteen artean aisialdi osasuntsua eta euskararen erabilera bultzatzeko asmoz. Azken urtean, ordea, parte hartzean jaitsiera nabarmena izan du proiektuak, eta hori dela eta, ekimena bertan behera uztea erabaki dute bultzatzaileek.

"Hasieran oso ongi funtzionatu zuen eta urteotan ekintza asko egin ditugu: abentura parkea, piragua, salting-a, rokodromoa...", zioen Felix Altzelai euskara teknikariak Esan Erran irratian. Baina, azken aldian, geroz eta zailagoa zitzaien ekintza erakargarriak proposatuta ere gazteak animatzea. Horregatik erabaki dute bertan behera uztea. Aurrera begira, horrelako ekimenak sustatzeko inplikazio zabalagoa beharrezkoa izanen dela uste dute bi eragileek: udalak, familiak, guraso elkarteak, gazteak, eskola... "Beste jende baten inplikazioa beharko da etorkizunean zer bait martxan jartzeko", zioen Miren Uharte Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko teknikariak.



2025EKO MAIATZAREN 15ETIK 25ERA

EUSKARALDIA

*Elkar mugituz
egingo dugu*

EMAN IZENA!

www.euskaraldia.eus



Aldarri eta borroka, martxoaren 8aren harira

Urtero bezala, emakumeen nazioarteko egunaren harira hainbat ekimen antolatu dira eskualdean aurtengoan ere. Iruñeko manifestaziora batzeko deia zabaldu zen, autobusak ere jarri ziren baina ez zen jende nahikorik apuntatu eta bertan behera gelditu ziren. Eskualdean, bazkaria izan zuten Iraizozko ostatuan eta "Emakume gaiztoen istorioak" ikuskizuna ere bai. Hori martxoaren 8an bertan izan zen, baina Ultzaman, martxoaren 1ean, crossfit emanaldia eta herri kirolak ere izan zituzten Larraintzarko frontoian.



Lantzen eta Anuen bi udalek elkarrekin antolatu zuten egun osoko egitaraua. Olaguen izan ziren ekimenak, eta goizeko ibilaldiarekin hasi zen. Eguerdiko 12:00etan, feminismoaren jatorriari eta emakumeen historiari buruzko hitzaldia izan zen Olagueko eskola zaharrean, eta segidan, bazkaria egin zuten ostatuan. Arratsaldean, berriz, berdintasunaren aldeko Escape Rooma izan zen eskola zaharrean, eta egunarekin bukatzeko, 21:30ean, karaokea izan zuten ostatuan.

Odietan, udalak hainbat jarduera prestatu ditu mar-

txoaren 8aren harira. Gelbentzutik aterata ibilaldia egin zuten, eta bertako kontzeju etxean bazkaria.

Basaburuaren kasuan, martxoaren 8aren aurretik hainbat ekimen izan zituzten, esaterako, otsailaren 28an Lorena Arangoak Tera Pia bakarriketa eskaini zuen, udalak antolatuta. Martxoaren 7an, berriz, emakumeen afaria egin zuten Aizarozko ostatuan.

Brigada moreak

Herrietako festetan eraso sexistei aurre egiteko helburuarekin, hainbat prestakuntza saio antolatu dituzte eskualdean. Hurrengo, martxoaren 29an izanen da, Larraintzarko Bentan. Saio hauek mistoak izanen dira eta herritar orori zuzenduak. Festa batzordeetako kideen eta gazteen parte-hartzea bultzatuko da. Miren Orozko Berdintasun gaietan adituak eskainiko ditu eta indarkeria sexista hobe ulertzea, identifikatzea eta honen aurrean nola erantzun jakitea da saioen helburua.

Bestetik, eskoletan, Lehen Hezkuntzan, Oihanzabalen eta Larraintzarren, hezkidetzak lantzeko antzerki tailerrak antolatu dituzte Otsailaren 24tik 27ra eta apirilaren 2tik 4ra. Oihanzabalen bosgarren eta seigarren mailakoekin eginen dituzte eta Larraintzarren bosgarren mailakoekin. Egun bakoitzean bi orduko saioak izanen dituzte eta azken egunean guraso eta ikasleei zuzenduriko emanaldia eskainiko dute. Helburuak genero rola aztertzea, hauek zalantzan jartzea, berdintasuna oinarri hartuta autoestimua lantzea eta errespetuzko harremanak sustatzea dira.

Bukatzeko, beste bi hitzordu: martxoaren 28an, 19:00etan, Gizarte Etxean, bertso saioa eta otamena izanen dira, Larraintzarren; eta, martxoaren 30ean, artisau azoka.

Rokodromo bat eraiki dute Larraintzarko eskolan

Guraso Elkarteak proposatutako proiektua izan da eta Ultzamako Udalaren babesa jaso du. Gurasoek auzolanean eraki dute eta elkarteak eta Udalak finantzatu dute.

Haur eta gazteen jolaserako eta hezkuntzarako guneak hobetzeko helburua du ekimenak. Azpiegitura berri honekin, haurrek jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko aukera izango dute, eta aisialdi osasuntsu eta hezitzaile baterako espazio berria izanen dute eskolako ingurunean.

Udalak, zabaldutako oharrean, eskerrak eman dizkie proiektuan parte hartu duten guztiei eta azpimarratu nahi izan du komunitate-lanak eskola ingurunea hobetzeko duen balioa.





UPNren eta PSNren jarrera salatu dute Nafarroako 18 pilota klubek



Euskal Federazioak nazioarteko txapelketan parte hartu ahal izatearen aurka azaldu dira UPN eta PSN Iruñeko Udalean eta Nafarroako Parlamentuan, eta haien jarrera salatu dute Nafarroa osoko 18 pilota klubek. Oharrean adierazi dutenez, zentzugabekeria iruditzen zaie pilotaren gaia ariete politiko gisa erabiltzea, eta salagarria da pilota klubak kontuan hartu gabe erabakiak hartzea. "Gure ustez, klub batek erabakitzen badu Espainiako Federazioarekin jokatzeko, kirol edo diru aldetik hobetzeko, eskubide osoa du hori egiteko. Baina baita Euskal Federazioarekin jokatzekoa ere", adierazi dute. Adierazpenarekiko atxikimendua adierazi dute eskualdeko pilotari lotutako zenbait kidek, Mikel Jaunarena 'Zepelok', Ibai Iriartek eta Aingeru Etaio.



**ZUREKIN BATERA
IREKITZEN DUGU
EGUNERO,**
zure negozioa
bultzatzeko



Susperregi Berria
kortse-denda,
1930az geroztik

LOKALIA

Dena tokiko merkataritzarako.
Dena tokiko merkataritzarentzat.

laboralkutxa.com/eu/lokalia

LABORAL Kutxan geure aletxoak ipini nahi dugu, **tokiko merkataritzak** gure herri eta hirietako aktiborik handienetakoa izaten jarrai dezan.

LOKALIA laguntzeko jaio da, eta **irtenbide integrala** eskaintzen du, gauzak errazteko, lasaitasuna emateko eta saltoki txikien ezaugarri guztiak sendotzeko.


LABORAL
kutxa



Mikel Gerendiain Azpiroz

Ziaurritzarrak bere lehenengo eleberria argitaratu du: Mauro

Ezka bako ihesaldian girotua, gizakiaren konplexutasunaz hausnartzeko eleberri bat da. 1938ko Ihesaldia aitzaki bat besterik ez baita pertsonaiez eta haien historiez hitz egiteko. Idazleak ez zuen gertaera historikoa zintzo eta zehatz kontatzeko asmorik, askatasun literarioarekin osatutako fikzioa da Mauro, baina memoria historikoaren garrantziak bultzatua. Martxoaren 21ean aurkeztuko du Larraintzarko Bentan, 19:00etan.

Europako ihesaldirik handiena izan zen Ezkabakoa. Orduan kartzela zen San Cristobaleko gotorlekutik ia 800 presok ihes egin zuten 1938ko maiatzaren 22an. Hiruk bakarrik lortu zuten muga zeharkatzea, besteak presondegira eraman zituzten berriz eta asko fusilatua izan ziren, baita gure eskualdeko herrietan ere. Mikel Gerendiain: “*El Drogasek sare sozialetan liburua gomendatu du eta aitortu du 45 urte bete zituen arte ez zuela ihesaldia ezagutu, Txantreakoa izanda. Beraz, utzi behar diogu esateari Gerra Zibilaren inguruan gehiegi hitz egiten dela, hori gezurra da. Ez dago hainbeste libururik edo pelikularik. Hori Espainiako eskuinak bultzatutako mito bat da*”. Berak txikitatik pentsatzen zuen gertaeran, baina, Fermin Ezkietaren *Los fugados del fuerte de Ezkaba* liburua atera zenean, konturatu zen oso gutxi zekiela. Beste askoren artean, Ziaurritzko lau herritarren lekukotza jasotzen da Ezkietaren liburuan. Gerendiainek argi du liburu horretan dagoela *Mauro*ren hazia. Ihesaldiaz ikasteko hura gomendatzen du, Mauro askatasun literarioz idatzitako fikzioa delako.

Bere lehenengo eleberria da *Mauro*, baina aurretik lau antzezlan idatzi ditu, horietako bat *Algoritmos*: “Ziaurritzko antzerki taldearekin estreinatu eta kanpoan ere antzeztu genuen”. Gerendiain 11 urtez liburu saltzailea izan da eta, orain, Geografia eta Historia irakaslea da.

Beti liburuez inguratuta, beraz?

Liburuekin maitemindua egon naiz, beti, eta tarteka zerbait idatzi dut. Ez dut egunero idazten, baina historia bat buruan sartzen zaidanean, osatu beharra daukat.

Eta Mauro iritsi zen.

Idatzitakoa hainbat laguni bidali nien, nire buruarendako idazte-

ko asmoarekin hasi nintzen arren. Baina idazten dugunok inpostore samar gara, idazten duguna benetan besteok atsegin izatea nahi dugulako. Gustukoa zutela sumatuen, eta orduan Daniri (Rosino) bidali nion, Walden liburu-dendaren arduradunari, Gomez liburu-dendan elkarrekin lan egin genuelako. Banekien zintzoa izanen zela, benetan pentsatzen zuena esanen



“
Iheslarien
eta
herritarren
arteko
bidegurutzea
interesatzen
zitzaidan
”

▲ Mikel Gerendiain, Mauro eskuetan, Ziaurritzko elizaren atrioan




zidala. Eta berak esan zidan *Pepitas de calabaza* argitaletxean ikusten zuela. Logroñoeko argitaletxe bat da, 26 urte daramazki eta urte askoz Europako anarkismoaren inguruko saiakerak argitaratu dituzte, besteak beste, eta duela urte batzuk eleberriak ere ateratzen hasi ziren. Haiek *mahai* editoreak dira, hau da, bidaltzen dietena benetan irakurtzera esertzen dira, eta idazle berriak babesten dituzte. Horregatik asko atsegin dut eta oso pozik nago, *Alfaguarak* edo *Seix Barralek* argitaratu izan balute baino gehiago! Haietan bat gehiago besterik ez nintzateke izanen, eta ez ninduten hemen bezala tratatuko, oso gertukoak izan dira. Ihesaldiaren historia ezagutzen zuten, eta editoreak eleberria irakurtzeaz amaitu baino lehen deitu zidan.

Nola jaso zenuen albistea?

Oso ongi oroitzen naiz Lonbardian bisitan nengoelako deia jaso nuen. Editoreak esan zidan, "berdin zait amaituta ez izatea, honezkero esaten dizut argitaratu nahi dudala!". Nik pentsatu nuen, "gizon hau mozkorturik al dago?". Baina hurrengo egunean, behin amaitu zuela, argitaratu nahi zuela berretsi zidan. Ez nuen espero. Urtebete ondoren kalean da.

Eta dagoeneko bigarren edizioa inprimatu duzue.

Liburua kontrolpetik at joan da, *El Pais* egunkariko *Babelia* kultura sailean agertu zenetik, batez ere. Liburua asteazken batean kaleratu bazen, astelehenean berriz inprimatzen ari ziren bigarren edizioa, hau da, lau egun geroago. Ea, ez da Perez-Reverteren ale kopuru bera, noski, baina 1.500 alekoa da tirada bakoitza, eta, beraz, 3.000 inprimatu dira. Horrek esan nahi du toki askotan interesa dutela, eta iruzkin asko jasotzen ari naiz, gustatu zaion jendearenak. Pentsatzen dut gustatu ez zaionak ez didala ezer esango (irriak). Baina harriturik nago.



**Mikel Gerendiainek
Mauro aurkeztuko du:
martxoaren 21ean,
ostirala
Larraitzarko Bentan
19:30ean**

Mauron ihesaldia aitzaki bat besterik ez da, benetan gizakiaren konplexutasunaz hitz egin nahi zenuela aipatu duzu.

Historikoki ihesaldiak ez zuen garrantzirik izan, ez zuen gerraren norabidean eraginik izan. Baina historiografia aldatu da eta gaur ez da historia duela 100 urte bezala egiten, aztertzen eta idazten. Orain historia soziala egiten da, eta ihesaldiak garrantzi izugarria du ikuspuntu sozialetik, memoria kolektiboan izan duen aztarna ere garrantzitsua da. Nik ez nuen ihesaldia izan zen bezala azaldu nahi, horretarako badaude liburu oso onak. Horregatik *Mauro*n datu gutxi daude eta dena sotilagoa da. Nik pertsonaien historia kontatu nahi nuen, muturreko egoeratan bizi direnak, beren sufrimenduekin eta tragediekin. Denek hitz egiten dute lehenengo pertsonan, oso korala den eleberri bat da. Nik pertsonaiak nola sentitu zitezkeen kontatu nahi nuen: ihesean ari zirenak, presoan atzetik zindozenak, herrietan bizi zirenak eta bat-batean presoak iristen zitzaizkienak. Eta ihesaldia kontatzeaz gain, haien historia per-

sonalak ere kontatu nahi nituen. Krimen nobela bat irakurtzen duzunean asko gozatu dezakezu eta oso ona izan daiteke, baina niri hurrengo egunean ahaztu egiten zait, ezagutzen dudan zerbait kontatu didalako.

Nor dira pertsonaia horiek?

Paradoxa bat dago, Mauro da izenburua, hau da, pertsona baten izena du, eleberri korala den arren. Jolas literario bat sortu nahi izan dut hor, baina, eleberria irakurri ezean, ezin da ulertu eta ezin dut esan *spoilerrik* egin gabe. Pertsonaia garrantzitsuenak ihes egindako hainbat preso, ihes egin dutenen atzetik doazen jazarleak eta zeharkatzen dituzten herrien herritarrak dira. Iheslariak hiru dira nagusi eta perfil ezberdinetakoak; jazarleak, bi dira nagusiki: German eta Tomaso, bata nolabait tokatu zaiolako dago hor; eta, besteak konbikzio ideologikoz egiten du; eta, azkenik, herritarrak: besteak beste, existentzia-krisi izugarrian dagoen apezka; eta, Basilisa, emakume fantasioso samarra, apezaren gelariaren alaba dena eta hilarriekin hitz egiten duena; Basilisa da gehien gustatzen ari den pertsonaietako bat, ameslari samar delako. Izan ere, historia gotorlekutik aldentzen doan heinean errealismotik ere aldentzen doa eta fantasia gehiago hurbiltzen da, fantasia ez genero fantastikoaren modura, baina askatasun gehiago dago narrazioan. Iheslarien eta herritar hauen arteko bidegurutzea interesatzen zitzaidan, horretaz ohartu nintzen arte ez nintzen eleberriarekin hasi.

Eleberriko herriak Ziaurritzekin ba al du zerikusirik?

Eleberriko herriaren irudia, niretako, Ziaurritz da, bere atrioa duen elizarekin, apezaren etxearekin... nahiz eta Ziaurritz ez den, mugatik askoz gertuago dagoelako eta Iruñetik ez hain gertu. Gero, izen batzuk hartu nahi izan ditut, Basilisa bat bazen, adibidez, baina ez du eleberrikoarekin zerikusirik.



Maria Mariezkurrena Goizuetak Shiatsu eskaintzeko tokia zabaldu du Lantz jaioterrian

Txinatar medikuntzan oinarritzen den teknika da Shiatsu. Maria Mariezkurrenak eskaintzen duena japoniar jatorria duen Zen aldaerakoa da eta, Akupuntura bezala, gorputzaren puntu jakin batzuetan eragitea da helburua. Txinatar medikuntzan puntu horiek energia kanalak dira eta, Akupuntura orratzak erabiltzen badira, Shiatsun eskuekin eta behatzekin presioa egiten da. Izan ere, Shiatsu japonieraz behatzekin presioa egitea esan nahi du. Horregatik, hemen, teknika horri digitopresioa ere deitzen zaio. Maria Mariezkurrenak Akupuntura eta kiromasajea ere eskaintzen ditu *Izen* deituriko bere txokoan.

Ama Lanzkoa eta aita Ilarregikoa, Iruñean jaio zen Maria Mariezkurrena Goizuetak, baina astebururo Lantz jaioterrian ziren, Apezenea etxera. Celestina amatxiren etxea ere, Ilarregiko errota, oso gogoan du. Maiarren urte askoz egin du lan, Iraizotzen hasi zenetik. Han bikotekidea ezagutu zuen, Gernikakoa, eta Bizkaia joan ziren. Baina gure eskualdearekin ez du sekula lotura galdu. Horregatik, orain, Lantz jaioterrian ere Bizkaian ikasitako medikuntza txinatarra eta Shiatsu teknikak eskaini nahi izan ditu. Baita kiromasajea eta Akupuntura ere, besteak beste. Maria Mariezkurrena: "Zerbitzu hori eman nahi nuen zonaldean, hemengo herritarrek ere horrelako toki bat izatea. Bospasei egun etortzen naiz hilabetean".

Aldaketa beharra

Mariezkurrenak Lan Harremanak ikasi zituen eta Ingurumenean eta Kalitate alorrean egin zuen espezialitatea. Maiarren, Iraizotzen, 10 urtez aritu ondoren, automozio enpresa berean jarraitu zuen Gernikan, kalitatean eta ikerketa edo I+d sailean. Baina 35 urterekin bizitzak astindu bat eman zion eta hor etorri zen aldaketa. Obulategi minbizia atzeman zioten eta, orduan, medikuaren tratamendua jarraitu

bitartean bere burua zaintzeko beste bide batzuk ere bilatu zituen: "Hobeki elikatzeko ikastaroak egin hasi nintzen. Gorputza lagundu nahi nuen. Makrobiotikarekin hasi nintzen eta gero *Sihatsu* ere ikasten. *Sihatsu* ikasteko prestakuntza hiru urtekoa da, Bilbon. Gero, akupuntura ere ikasten hasi nintzen,

Bartzelonan Manu Moreno dokto-rearekin lehenengo, eta, gero, Le-kunberrin, Egoitz Garrorekin, Yakin eskolan".

Bilbon, duela hiru urte, praktikak egin ondoren, Maiarren eszedentzia eskatu eta Gernikan zerbitzua eskaintzeko pausua eman zuen.



Maria Mariezkurrena masajeetarako eta Akupunturarako erabiltzen duen materialarekin ▲



Ez zen erraza izan, izurritearen ondorioz, beste negozio askotan bezala, oztopo handiak baitziren: "Garai hartan ukitzea debekatuta zegoen eta maskarilla erabili behar genuen. Hasteko aurrezki batzuk banituen, banekielako hasiera horretan bizitzeko nahikorik ez nuela aterako. Hor poliki-poliki hasi nintzen, lagunekin, ezagunekin... eta horrela joan nintzen ikusten benetan gustukoa nuela eta ez zela aurreko lanetik ihes egiteko bide bat besterik ez". Orduka alokatzen diren toki batean hasi zen lagun batekin, eta, orain, haien lokalaren bila ari dira. Aldi berean, Lanzko Soldanea etxean lanak egin zituztela aprobetxatuta, aipatu txokoa ere zabaldu du.

Medikuntzaren osagarria, ez kontrajarria

Mariezkurrenak azaltzen digunez Shiatsu bezalako teknikak ez dira oso ezagunak Euskal Herrian. Japonen, berriz, Osasun Publikoak aitortzen duen ofizioa da. Maria Mariezkurrenari garrantzitsua iruditzen zaio ezagutaraztea: "Osasunaren alde pilulak hartzea besterik ezin dugula egin, ideia hori alde batera utzi nahiko nuke. Gorputzak baliabide asko dituela eta batzuetan modu ez hain erasokorrean tratatu gaitzkeela zabaldu nahi dut, bide naturalago batekin". Eta, aldi berean, teknika hauen eta men-debaldeko medikuntzaren artean



izaten ohi den talkarekin ere amaitu nahi du: "Norberaren gorputzari arreta gehiago jartzea, gehiago begiratu, elikadura aldatu, bizi kalitatea nola hobetu daitekeen pentsatu, hori bultzatu nahiko nuke. Guk egin dezakeguna da lagundu, akonpainatu, eta, jakina, prozesu medikuak alde batera utzi gabe, hori inoiz ez. Prozesua irauten duen bitartean lagunduz, hobekuntzak ikusi ohi dira. Hau da, ez da arazoa konpontzea edo ez ehuneko ehunean, baina prozesu horretan lagundu daiteke. Egoera larrietan dauden pertsonen hori esaten diet, hau akonpainamendu bat besterik ez dela, gorputzarendako ere, errekuaratzeko bidean".

Poliki-poliki mentalitatea aldatzen ari dela uste du eta prebentzioak ere geroz eta garrantzi handiagoa duela: "Jendea kontzientzia hartzen hasi da osasuna, geroz eta gehiago, norberaren ardura ere izanen dela. Hau da, noizean behin masaje bat hartuta gorputzari ongi egiten zaio, eta ez, egin ohi dugun bezala, bakarrik gaizki gaudenean medikura joan, besterik ez. Bestetik, medikuntza txinatarrak emozioei ere jartzen die arreta, pazientearen egoerari. Zer gertatzen ari da? Zergatik etorri da hau momentu honetan? Batzuetan gelditu behar dugu eta aldaketaren bat egin. Gorputzak beti ematen ditu seinaleak baina batzuetan ez dugu entzuten gelditzen gaituen arte, esaten digu: 'geldituko zaitut eta ea horrela kasu egiten didazun' (barreak)".

Maria Mariezkurrenak etengabe prestatzen jarraitzen du. *Shiatsu*, Akupuntura eta Kiromasajearekin batera, osteopatia eta landareen inguruan ere ikasten ari da, zerbitzuak hainbat adar izan ditzan. Baina, aitortu digunez, bezeroekin ikasten du gehien: "Laguntzen dituzu baina aldi berean haiekin batera

“ **Gorputzak beti ematen ditu seinaleak baina batzuetan ez dugu entzuten gelditzen gaituen arte** ”



Izen

676 1333 802

Instagram: [izen_salud](#)

izen.shiatsu@gmail.com

Martxoko hurrengo datak:
21, 22, 28 eta 29

egiten duzun ibilbide bat da, pausuz pausuz egiten dena, behar duzuna ikasten joaten zara aurrera egin bitartean. Barneko lana ere oso garrantzitsua da, zu orekan egotea, zu ongi egon behar baituzu besteak laguntzeko". Hori guztia gutxi balitz, kremak eta ukenduak ere prestatzen ditu. Hitzordua hartzeko telefonoz egin daiteke, whatsapppe edo dei bitartez. Normalean, ostegun arratsaldetan; ostiraletan, goizez eta arratsalde; eta, larunbat goizetan izaten da.



Santa Ageda Gartzaronen



Etxalekuko irakurle taldeak Juantxo Urdirozen bisita izan zuen, Garabi suizidaren amodioak liburuaren idazlea



Euskal Herriko Mus Txapelketako Imozkoko kanporaketa



Lehen sorospenen ikastaroa Etulainen

Zorionak Zorionak !



Zorionak, Olatz! 10 urte!



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



Gartzarongo ihoteak 2025



Utzamaldeko jolasa

Maite ditut, maite, gure bazterrak... zer ikasia ematen digutenean

'Utzamako jolasa' atalaren bosgarren artikulua dugu hau. Gaurkoan **alorrak** zer diren argituko dugu, hañen ugariak gurean joan den mendera artio. Halaber, **makur** hitza gure jolasean berriz txertatzeko konbitea eginen digu Alazne Fdez de Muniainek.

Alormakur leku-izena Zenozko dermioan dago, nahiz eta bertze herri batzuetan ere badugun: Urritzola-Galainen, Burutainen, Beuntzan, Udaben, Orokietan, Ziaurritzen...

Deskonposa dezagun toponimoa: 'alor' eta 'makur'. Zuetariko askok gaugerero deszifratu izanen duzue esanahia: makur dagoen edo makurra den alorra. 'Makur' adjektibo da, zerbait nolakoa den erraten diguna: gaztelaniazko "torcido" edo "malo, erróneo". Aldiz, guri eskolan "torcido" edo "erróneo" dagoenari 'oker' edo 'okertuta' dagoela irakatsi digute. Gero eta gutxiago aditzen da 'makur' hitza gutartean, eta arrunt gurea den hitza da. Ikus ditzagun hainbat adibide, Amaia Apalauza (2012) hizkuntzalariak bilduak:

Makurreo giñauden = 'makurrago geunden' (Udabe)

Mixeri makurrek = 'Miseria makurrak' (Urritza)

Apeza biño makurreo zen alkatea; ore zen makurrena! = 'Apeza baino makurragoa zen alkatea; hura zen makurrena!' (Muskitz)

Lekukotasunek erakusten digute, hortaz, bertako hitza dugula 'makur'. Adibide horiez gain, duela mende Erdiko inkesta batek Muskizko eta Etxalekuko berriemaile batzuen erantzunak dakartza. Hara nola euskaratu zuten elkarrizketatuek "Estoy peor" esaldia:

Naó lénago beño makurráo = Nago lehen baino makurrago (Muskitz)


Ní mákurraó náu = Ni makurrago nago (Etxaleku)

Hori leitzean jakin-gosea etorri zitzaidan eta neronek ere egiaztatu nahi izan nuen gaur egungo imoztarrek nola ihardetsiko zuten. Goldaratza, Etxalekura eta Muskizta abiatu nintzen, zer adittuko:

Goldarazko eta Etxalekuko gazteek *Okerrau nau* ihardetsi zuten. Eskolako euskararen eragina bistakoa da. Etxalekuko eta Goldarazko helduek *Okerrau nau* eta *Makurrau nau* ihardetsi zuten, hots, bietariko erantzunak. Azkenik, Muskizko heldu batek *Atzo biño okerrago* ihardetsi zuen. Horra hor adinekoak ere euskara estandarrek kutsatzen dituen frogak: saihetsezina da.

Onorioz, erran dezakegu mende erdi batean bete-beteko lehian daudela bi forma hauek, 'makur' eta 'oker', baina argi dago zein gailenduko den... ezta?

EHHara ere jo nuen 'makur' hitzaren arrastoen eske. Adjektibo gisa ez nuen deus opatu, bai ordea bertze hitz batzuetan txertaturik:



Bagomakur leku-izena Egozkuen. Joan beharko dugu makur dagoen bagoa (pagoa) bilatzera!

Bídemakurré Etxalekun (gazt. "curva")

Adarmákur Suarben (gazt. "res cornigacha")

Gure mugetatik landa, Otsagabian *Arbolmakur* dugu, Olazagutian eta Orreagan *Arizmakur*, *Artamakurra* Adiosen, *Bídemakur* Uxuen, *Solamakur* edo *Soramakur* Antzinen eta Aranaratxen, *Euntzemakurra* Lekunberrin, *Galtzadamakur* Baikaikun, *Makurreko Landa* Baztanen, *Makurtegi* Larraonan, *Ugalmakurra* Urraulen, *Zubimakur* Itzan eta Ollaranen...

Hel diezaiogun orain *Alormakur* toponimoaren bertze osagaiari: hau da, 'alorra'. Herri-hizkeretatik eta, batez ere, herri-bizimodutik urrun dauden euskaldunek erranen dute 'alorra' gazt. "ámbito, área, campo" dela. Eta bai, testuinguru akademikoetan (besteak beste) halaxe erabiltzen da, 'esparru' edo 'arlo'-ren sinonimo, alegia. Baina jatorriz, Nafarroan, 'alorra' ereiteko lurra



Errekamakurra leku-izena Suarben, oihana zeharkatzen duen ugaldetto bihurria



edo pieza da, laborantzarako lurra. Gaztelaniaz "campo cultivado" edo "sembrado". Euskara batuak, haren lexikoa finkatzean-edo, gainbehera zetozen hainbat hitz tradizional hartu eta, mailegatuz, adiera figuratiboa eman die, kontestu formatetan ere erabil daitezten. Arrakasta handiz, gainera. Horietako bat dugu 'alorra', ereindako lur-eremu izate-tik diziplina- edo ezagutza-eremu ere izatera pasatu dena.

Orduan, 'alorra' zereal-pikorrak botatzen diren piezak dira (garia, garagarra, oloa...). Gure alderdian, batez ere garia ereiten zen joan den mendera arte; gaur egun, aldiz, arto-sailak ikus ditzakegu nagusiki, arto-lastoa, aziendarendako (Oskotzen adibidez, edo Arraitzen). Nolanahi ere, oraindik badira bestelako alorrek gurean: Muskitzen, Udaben... Ultzaman barna ere gari- eta garagar-alorrek ikus ditzakegu.

Toponimoetan interesa agertzen hasi nintzelarik, eta gure inguru hobeki entenditzen beraz, gogoan dut 'alor' hitzak atentzioa ematen zidala askotan. Inguruetan 'alor' gora, 'alor' behera, nonahi... Baina leku horietan alorrik ez! Den-denak soroak edo euntzeak dira (*iuntziik* goldaraztarren hizkeran, bidenabar erranda), belarra alegia. Orduan?

Erasoko xaharrek kontatu zidaten

haiek ttiki edo gazte zirelarik Erasoren alorrek zeudela: artoa, garagarra, baba ttiki batzuk.... Jendeak zereala saldu eta diru pixka bat irabazten zuen. Ez aunitz, ordea! Horregatik, duela mende erdi-edo, alorrek zirenak belar-soroak bilakatu ziren eta esne-behiak ekarri zituzten gurera. Nafarroako Diputazioak belar-mota emankor baten haziak eskaini zizkien herritarrei, *belar artifiziala*, hemengoek zioten gisan, kalitate hobekoa aurki. Geroxeago, negu-belarra edo *raygras*-a etorri zen, Diputazioaren eskutik berriz ere. Udakoa nahiz negukoa aziendari bideratua zegoen belar hura, behiek esne gehiago ekoizten baitzuten hori janez. Pentsatzekoa da, denbora pastu ahala, tokiko belarra gailenduko zitzaiola belar artifizialari; hibridatze-aldiren bat egonen zen baina azkenean bertako belarrak bere tokia hartuko zuen berriz ere.

Hartara, duela mende erdi gure herrietako bizimodua eta ekonomia aldatu zen. Behien esneak zerealak baino jornal ederragoa ekartzen zien herritarrei. Gure paisaia ere eraldatu zen: ordura arte alorrek zirenak, soroak bilakatu ziren. Baina gure toponimoek ongi deskribatzen dute ez aspaldiko paisaia hura. Haiei erreparatuz, aunitz ikas

dezakegu eta gure historia hurbila ezagutu.

Muskitzen eta Goldaratzen *Alo-rraundi* dute, baita Burutainen, Jauntsaratsen, Zigandan eta Latasa-Odietan ere; Beuntzan eta Gaskuen *Alorberexa*; Igoan *Alorberri*; Alorluze Olaguen, Urritzan eta Ziaurritzen; *Alorretetako Bidea* Eltzaburuan; *Alorretxi* Lizason; *Alortiki* Arraitz-Orkinen eta Zarrantzen, *Arimen alorra* Aroztegin... Arrunt iradokitzaileak dira batzuk, ezta?

Jakina, Nafarroa osoan 'alor' hitza ageri zaigu, nafarreraren erakusgarrri: Goizuetatik Erromantzatura, Zangozaldetik Luzaidera: *Attunalar* (Oderitz), *Aldapako Alor* (Erro), *Alorgorri* (Garaioa), *Alorgunea* (Orbaitzeta), *Alorluxe* (Artzi, Itzaltzu, Otsagabia), *Alormearra* (Oroz-Betelu, Lerga), *Alorrandi* (Baztan, Abaurrea, Leatxe), *Alorttipia* (Luzaide), *Alorxabal* (Osinaga), *Alorzar* (Ekai-Arakil, Untziti, Leitza), *Apezalor* (Jaurrieta), *Auzalor* (Oloritz, Berriozar, Olkotz, Urraul, Goñi), *Izalorra* (Burgi)...

Nahikotxo ikasi dugu gaurkoz! Espero dut hemendik altzina hobeki ulertuko dituzuela zuen herrietako bazterrak. Ongi ibili, ez makur!



Alazne Fdez de Muniain



Eta beti izaten da buxtanen bat

Buruan iltzatua nuen joan den 15 urtean Berueteko lapurrez idatzi behar nuela Pulunpen. Ehun urte betetzear eta biloba edo iloba zuzenik ez zutenean eginen nuen. Eta hala gertatu zait, ustez behintzat iloba zuzenik ez dut ezagutzen. Denak hil ziren, azkena ez urte asko dela.

Zoritxarrez, lekuko zuzenik ez nuela izanen banekien aspaldian; hala ere lekuko zuzenen umeak edo adiskideak bai. Eta laguntza handia izan dira niretzat.

Eta, inportanteena, Don Francisco Aranguren Berueteko apezka izandako etxalekuarrak, egun batean, hara, non ekarri zidan Dionisio Ruiz Goñik idatzitako gertakariaren kontakizun luzea (20 orri ditu) Fraide erredentorista hau, lhabe-nen jaioa zen 1916an eta bertan bizitu zen bere familiarekin batera 1923an Itsasora lekualdatu zen artio. Eta hurrengo urtean 1924ko ilbeltzaren 1ean Gartzarona, **Joaintzina**, hona ere maistar. Basaburuan korrespondentzia banatzen bi urtez ibilitakoa dugu Dionisio.

Gartzarondik 1933an alde egin zuen familia honek.

Bai, Don Franciscok ez zidan deus esan, baina esan balit bezala hartu nuen, **-Idatz ezak zerbait**, esan balit bezala. Eta hortaz, Don Franciscori zor nion; eta Berueteko herriari ere zor nion historia inportante hau.

Hola, hasi 3 ataletan edo kontatuko nuela Pulunpen eta, idatzi ahala, xehe-tasun gehiago jakin ahala, kapituluz kapitulu, luzatzen joan zait hiru ikazkin euskaldun hauen zoritxarreko historia.


Hala, paperak irakurri eta lekukoe-kin egon ahala, hasi nintzen idazten eta aldi berean publikatzen,

eta, jakina, hanka sartze batzuk egin ditut. Orain oker horiek zuzentzea dagokit:

-**Erasote** dermioa Leitzako eta Berueteko mugan dago. Dena dela, nik idatzitakoaren kontra, Beruete aldekoan ari ziren ikatz egiten. Eta lantegia Auzako **Polloneko** Antonio Aldatz Mariezkurrenarena zen, 1922an herriak han eta hemen saldu zituen lantegi guziak hartu baitzituen, izugarritzko egur karga pila, dena ikatz egiteko (Oroit gaitetzen lapurren aita, Pedro Goñi, Auzatik etorria zela Beruetera)

-Bernardo, anaietan zaharrena zen ezkondu bakarra, **Idiagako** Micaela Garronekin, eta non jarri ote zen bizitzen ezin asmatuz ibili nintzen. Jendeak Idiagan esan izan dit beti, baina ez da horrela, **Gaztondoko maistarretxean** jarri ziren bizitzen (Gaztondoko etxeko atzeko partean)

Antonio, "Sagasti", izan zen zuzen



Don Agustin Villanueva, 1938-06-19an hila

esan zidan bakarra. Lehendik ere banuen horren berri baina atzenda nuen. Geroztik paperetan ere agertu izan zait, **Gaztandoan** bizitu zela ezkondu ondoren. Datu erabat zuzena eta segurua da.

Gizon bat hil zuten

Kontu franko ibili izan du jendeak, baina segurua da heriotza bat besterik ez zutela egin. Besterik entzun izan baduzu, gezurra da. Eta Martin Aizkorbe zen hil zutena.

Huts batzuk irristatu zaizkit:

Fotografia batean sartu nuen Ilarregiko Silvestre Ramoneda, **Miltxoneko** atarian. Denok dakigu Miltxonea hori aspalditik **Urrikenekoa** dela eta Silvestre hurbileko etxeko jabea dela, **Herrikoetxea** izandakoarena.

-Besteren bat ere badut, baina handiena, nik uste, nola eta zergatik jakin zen heriotzaren berri ez dudala ongi lotu da.

Egunkariren batean irakurri ahal izan dut goizean goiz mugitu zirela. Eta ez zituela inork ikusi elkarrekin, Iturriagako Fermin Telletxea kenduta.

Dionisio Ruiz Goñik, prozesu guzira irakurri duenak, honako hau dio: "No sabemos con seguridad si ya desde Beruete partieron los dos hermanos Goñi solos o formando grupo con Martin Aizcorbe" "Juan Martin y Jose partieron temprano".



Gauzak zehazte aldera, Antonio Otxotorenari galdetu nion lehen-goan eta honek aipatu zidan herri guziak ikusi zituela elkarrekin herri-ritik gora joaten.

Eta nahiz ziurtatzerik izan ez, honela gertatzea oso-oso posible da:

Iturriagako Fermin izan zen ikusi zituen bakarra? Edo herri guziek ikusi zituen? Oso goiz atera ziren? Oso goiz baldin bazen baliteke Fermin izatea ikusi zituen bakarra. Beranduxeago izanik, herri guziak ikusiko zituen.

Modu batean izan edo bestean, apezak, Don Agustin Villanuevak berehala jakinen zuen, baina aho-peka entzuna, erdi sekretu bezala, duda ere sortu baitzen zer egin ote zuen Aizkorbek; atzerrira alde egin dirua hartuta agian? Edo beste okerragorik gertatu ote zitzaion? Desagerpena kontuz hartu beharra zegoen, jakinik gainera nolakoak ziren goñitarrak.

D. Agustin Villanueva Iribarren, apeza tentu handikoa izanik, bazterrak gehiago nahasi gabe, kontu guzi hori bere iloba Don Timoteo Lazkotzi pasatuko zion, Basaburuko idazkariari, eta, aurki, baita Juzgaduko idazkari zaharrari ere, Don Eulogio Ortigosari.



▲ Berueteko Apezetxea. 1924an hemen bizi zen Don Agustin Villanueva Iribarren, Ekaiko semea, bere zerbitzariarekin, Norberta Agirre Zubillaga beruetarrarekin

Horrela, D. Timoteok eta D. Eulogiok zuten informazioa zuzen-zuzena zen, eta xehea. Horrela Don Eulogiok aise asmatu zuen nor ziren hiltzaileak, hiltzailerik bazen behintzat.

Bernardoren erorketa

Nola izan zen Bernardoren erorketa? Bai, kontatu genuen zerbait noski, koinatak, Juana Mari Garrok saldu ote zuen. Informazio emaile batek, zera esan dit, ziur koinatua

izan zela saltzailea, Manuel Galarza Astitz, **Idiagako** nagusia.

Hor zebilen Bernardo **Seanbeko** mendian ezkutuka, Frantziara joateko ideiarekin, baina ez atzera eta ez aurrera, erabakirik hartzen ez. Jakina, nola utziko zituen Justiziarren hatzaparretan bakar-bakarrik bere bi anaiak, bera izanik ekintza guziaren erantzule? Bai, familia horretan elkarrekiko oso lotura estua zuten, eta Bernardo erori bazen, nahi izan zuelako izan zen. Dudarik ez dago nik uste.

Bernardoren alargunaren biziaz

Bernardoren andrea 1925eko otsailaren 2an alargun geldituko zenaz, deus gutxi dakigu. Ume bat izan zuela bai, Hilary delako neskatua. Hirugarrena izan zuen hau. Militar batzuekin joan ote zen Marokora eta bertan jaioa ote zen da dakiguna. Nolanahi gisa, Hilary hori oso noizbehinka Beruetera etortzen omen zen ondoren.


Gauzak zehazte aldera, Bernardok eta Micaelak Berueten bi haur izan zituzten, zaharrena Rufino eta hurrengoa Alejo. Alejo hau 1924ko urtarrilaren 27an hil zitzaion, 6 hilabete zituela. Eta ondoren Rufino umezurtza, **Idiagan** bizi zela, 1926ko maiatzaren 3an, irakiten zegoen esnea gainera erorita, hiru urtetto besterik ez zituenean.

Besterik

Lanzko lapurrekin ahaidetasuna bazutela ere entzun izan dut askotan. Zerbait arakatu dut, baina ez dut lotura hori egin ahal izan. Goñitarraren birraitona, Jose Maria Goñi, Beratsaingo zela bai.

Tituluan jarri bezala, beti izaten da buztanen bat, erabat ezin bukatu. Bego honetan!

 Txurdan



▲ Iruñeko Udaletxeko dokumentua, kanposantuko liburua. Lurperatutako tokia ez dut opatu. Desegina izanen da.



Juan Goñi Lazkano ere Elizaren kontra?

Goñi senideetan seigarrena zen eta hemendik Hernanira alde egin zutenean 17 urte zituen. Eta Hernanin, Errepublikara garaietan, eman zuen hitz egitekoa. Hala kontatu zidan aspaldian beruetearen batek: *apeza hil zuen meza ematen ari zela, korutik tiro eginda. Gero kartzelan egon zen 9 urtez. Ondoren Beruetera etortzen zen egunak pasatzera. Oso gizon ona zen; beste batzuk gaiztotako zeukaten baino niretzat gizona ona zen. Ona eta indartsua ere bai, behin txingak eramaten apustua egin eta pausu bategatik galdu omen zuen.*

Apez bat hil zuelako kontu hori ezinezko iduritzen zitzaidan, ez bainuen horrelako ekintza bortitz baten oihartzunik. Eta hala, papeletan bila ibili eta Hernaniko historian ageri da nola Juanek herriko elizan tiro egin zuen, eliza profanatu. PSOEko kidea zen.

Eskandalua ederra jarri zuen. Gero kartzelan egon zela ere ikusi ahal izan dut, Cadizko Puerto de Santa Maria kartzelatik 1946ko irailaren 5ean libre ateratu zen. Ondoren Hernaniko Papeleran aritu zen lanean.

Zer ote zuten goñitarrek Elizaren kontra? Beruete Juan Martinek prozesioari tiro eta Hernanin Juanek eliza barnean. Kasualitatea? Beruete ote zekarren Juanek herra hori? Beharbada bere anaien erorketan Beruete apezak erakutsitako jarreragatik? Hala baltz, Juan ez zebilen nire ustez oso zuzen, zeren, zazpigarren atalean idatzi nuen bezala, Timoteo Lazkotz Villanueva Sekretarioak erakutsi zuen errukia eta balentia izugarria izan zen. Eredugarria! Eta bere osaba ere ez zen jarrera horretatik oso urruti ibiliko!

 Txurdan

Hiztegia

Lekukoa: testigo.

Atala: parte, capítulo.

Xehetasuna: detalle.

Egur karga: Edukiera neurria da. Egurra “karga” arioren saltzen zen. Zenbat karga? 100, 200, 1.500 karga. Kargaka saltzen zen egurra.

Tentu: Juicio, sentido, razon (Hemengo hitza ere bada hau).

Ekintza = azioa: acción.

Bortitza: violento.

Jarrera: disposición.

Errukia: compasión.

Informazio emaila guzietan, milesker!

-Dionisio Ruiz Goñi fraideak (gartzarondarra) orain urte batzuk prozesua irakurri eta idatziz jarritako kontakizuna erabili dut ardatz bezala. Orain prozesu osoa Madrilen dago, digitalizatzen ari dira eta ezin dut kontsultatu ahal izan, zoritxarrez. Madrilekiko menpekotasuna lotsagarria da!

-Beruete lagun eta adiskideak: Joxe Antonio Arangoa Zia, Juan Bautista Arrarats Bildarratz, Joxe Etxarri Barberena, Braulio Etxarri Ripa, Jose Luis Navarro Baztarrika eta Antonio Otxotorena Beuntza.

-Gartzarongo Miguel Goñi Olias.

-Etxalekuko Juaniko Erbiti Aldaregia.


-Ilarregiko Silvestre Ramoneda eta Iraizozko Martxelo Etxeberria.



Hernaniko Parrokia Eliza, San Juan Bautista bataiatzailea, hain zuzen Beruete eliza bezala

M8

Emakumeen
Nazioarteko Eguna



Ez zaitzatela nahasi...

Gezur Matxistekin

**“Ni feminista naiz.
Etxean laguntzen dut”**

Kontua ez da laguntzea,

erantzukizuna partekatzea baizik;

alegia, etxeko lanetan eta zaintzan baldintza beretan aritzea.





Otsaila, otso hila... gurean, zerri hila

Otsoen hilabetea omen otsaila, baina, azkenaldian, zerri kontuak ugariagoak izan dira amezti.eus atari digitalean. Izan ere, urtarrileko Zozketa Mundialeko protagonista nagusiak hamar zerri gizenak izan eta gero, zerri kontu gehiago ekarri dizkigute kolaboratzaileek irratira... bada, otsaila, gurean, zerrila.

Eztena eta badena historia atala egiten digute hilero Esan Erranen Eneko lurramendi 'Tintok' eta Mikel Lakastak. Aurten, hainbat animalia inguruko istorioak, kondairak eta bitxikeriak dakarzkigute saio bakoitzera, eta zerriaren inguruan aritu zaizkigu azken ataletan. Euskal Herriko zerri arrazetatik hasi eta George Clooney-ren maskota zerri bietnamdarraz aritu zaizkigu... ez galdu!

Eztena eta badena: zerria eta zerrikeriak II



Ingurumen gaiekin lotuta, baina energiari begira, Erripan antolatu zuten energia komunitateen inguruko mahai inguruaz solas egin genuen Gurutze Santxorekin irratian. Energia komunitateak zer diren, zein helbururekin sortzen diren, eta gure inguruan martxan dauden zenbait proiektu eta esperientziaz aritu zitzaigun Santxo. Hemen entzun dezakezue elkarrikeria osorik.

Energia komunitateen mahai inguruz solasean



Broma Gutxi, 20. saioa!

Otsailaren 13an Broma Gutxi saioaren atal berri bat izan genuen Esan Erranen, hain zuzen, 20. saioa! Hardcore eta punk biniloak zuzenean jartzen dizkigu bi astean behin Tipule Meniere jaunak, eta zoriondu beharrean gaude, iazko apirilean irratsaioari —edo, berak dioenez, rat-saio— ekin zionetik fin-fin ari baita lanean. Musika saioan hausnarketarako tarterik ere hartzen du Tipulek. Hemen entzun ditzakezue orain arteko saio guztiak.

Broma Gutxi




Bestetik, hilabete honetan ingurumen gaiek ere toki berezia izan dute irratiko elkarrizketetan. Otsailaren 12an Silvia Zabalza elkarrizketatu genuen, Nafarroako Ingurumen Kudeaketako teknikaria da lanztarra, eta Balio Natural Handiko Segabeldiendako dirulaguntza lerroaz aritu zitzaigun hizketan. Nekazaritza Politika Bateria-tuko dirulaguntzen barruan iaz martxan jarri zuten lerroa da.

Segabeldiendako dirulaguntzak



George Clooney bere maskota kuttunarekin



Azpiratu gaituzte

Azkeneko ARDO FREXKOkoko artikuluan Instituzioetan nola erdaraz aritzea behartzen nauten (gaituzten) aipatu nuen. Oraingoan geren buruez ariko naiz, nola espainolaren inposizioa gauza naturala bezala hartzen dugun.

Joan den urtean hil zitzaidan Igoako adiskide bat, Angel Martija Lizaso, gizon zuzena eta ona, inor onik bada behintzat mundu honetan. Ba, hil baino hilabete pare bat lehenago Erresidentzian egin nion bisita batean atera zen eskolako kontua, nola zuten erakusten maisuak espainolez, baita maisuak euskaldunak izanik ere. Haurrak nola zigortzen zituzten eta nola erabiltzen zuten eraztuna euskaraz mintzatzeko harrapatzen zituztenean.

Eta, bukaeran, hara zer bota zidan:

-Nik entenditzen nin gurasoak konforme izati, gue hobe bearrez yun hori, bestela ez giñin erdias ikasiko!

Isilik gelditu nintzen.

Nik ere entenditzen dut guraso haiek hola barneratua izatea erdararen inposizio latz hura. Bai, entenditu edozein gauza entenditu daiteke, auzokoari lapurreta egitea edo senarrak emaztea zanpatzea. Entenditzeko ez da asko behar, hobe beharrez egiten baitira gauza asko, baina onartu? Hor dago koxka, Angelek entenditzeaz gain onartu ere egiten zuela zigor hura.

Beste hau ere ez da aspaldiko kontua. Ez du urterik hil zela Ultzamako emakume bat, zeinak bere seme-alabei euskaraz erakutsi ez

eta nola bota zidan "desafioz" bezala:

-Ne semia ez da iñoiz biartu euskias yakin biarraz.

Oraingoan ere emakume haren ateraldia entzun eta isilik gelditu nintzen.

Aipatu seme hori osasungintzan ari da, Iruñerrian, eta nahiz euskaraz jakin ez, beti konpondu izan da espainolez gaixo guziekin *-hori esaten du amak*. Beharko!


Ez bere amak eta ez berak, ez dute pentsatu izanen **zenbat jende behartu duen espainolez aritzea**. Hainen da zaharra zauria, ohartu ere ez garela egiten euskaldunok nozitu dugun kalteaz.

Entenditu bai, entenditzen ditut Angel eta Ultzamako emakume langile porrokatu hura. Baina beren buruan sartu zieten benenoa ez dut onartzen. Espainiako supremazismoa, bortxa, euskaldunokin bukatu nahi hori ez dezaket inola ere onartu. Hortik hasi beharra dago, injustizia ez onartzetik, eta hortik hasi eta zerbait egin dezakegu. Baina lehenik, begiak zabaldu eta ikusi.

Dena dela, Espainiaren euskaldunon kontratako politikak ez du bukaerarik. Hori aski ez eta orain sinetsarazi nahi digute gu garela euskara inposatzen ari garenak, gu garela bortxatzaileak. Eta diskurtso hori sinetsi egin du euskaldun askok. Zuk ere bai?

Inoiz baino menpekoago gaude, inoiz baino okerrago, eta ez dugu onartu nahi.

Ardoa ez da ardoa, erabat dago ozpindua. Ardo berri-berria ekarri behar dugu eta zahagi berrietan sartu. Ez dago beste aterabiderik.



▲ Maioraren ironia eta sarkasmoa! LINGUA NAVARRORUM vel LINGUA VASCONUM bere azken liburuan!



25 urte baino gehiago zinemari ile-apainketa eta makillaje lanetan

Marcel Barrena zinema zuzendariaren El 47 pelikula entzutetsuan ile-apaintzaile eta makillaje arduradun izan da Auzako Karol Tornaria, eta Goya sarietarako izendatuen artean egon da. 25 urte baino gehiago daramatza zinemaren munduan lanean, Bartzelonan. Lanbide berezi horren ingurukoez hitz egin dugu berarekin.

Noiz eta nola hasi zinen zinemari makillatzaile eta ile-apaintzaile gisa?

Egia esan, nik ez nuen betidanik gustuko izan makillatzea, baina Bartzelonara joan nintzen, eta han ikastaro batean eman nuen izena. Ikastaroa bukatutakoan, film labur batzuetarako kontaktatu ninduten, eta horrela hasi nintzen, poliki-poliki, nahiko oharkabean. Nik diot iritsi behar dena iristen dela. Zinemari soilik aritu naiz honetan, aurretik inoiz ez nuen ile-apaindegirik ez ezer eduki. Hasierako urteetan publikitatean ere aritu nintzen lanean, eta gero zinemara pasatu nintzen.

“ 71 bat pelikula eta serietan egin dut lan azken 25 urteotan ”

Nolako da egunerokoan lanbide hau? Grabaketa guztietan egonen zara, ezta?

Gaur egun ile-apainketa eta makillajeko arduraduna naiz. Normalean lau edo sei bat laguneko taldea aritzen gara, egun berezietan, pun-

tualki, jende gehiago ere egon daitekeen arren. Kanpotik, gure lanak oso polita dirudi, baina oso gogorra ere bada. Lanaldi luzeak izaten ditugu, hamar ordutik gorakoak, eta kanpoan grabatzea tokatzen bada, berdin dio euria, eguzkia edo zer egiten duen. Behin pelikula muntatuta dagoenean oso polita da, baina kameran atzean ez da hain erraza. Zinemaren mundua idealizatzeko joera ere badugu.

Urte hauetan guztietan, zein pelikula edo ikus-entzunezkotan aritu zara?

Zerrenda luzea da, 25 bat urte daramatzat honetan... Cesc Gayrekin lan asko egin dut fikzioan, esaterako, *Truman* pelikulan, ezaguna egin zen, Ricardo Darin eta Javier Camararekin. Baina beste asko ere bai: *Historias para no contar*, *Una pistola en cada mano*... Almodovarrekin ere aritu nintzen, baina laguntzaile gisa, *La mala educación* pelikulan. Uste dut 71 bat pelikula eta serieetan parte hartu dudala guztira, pentsa!

Eta, horietako bakoitzak bere berezitasunak izanen ditu ile-apainketa eta makillajeari dagoeneko, ezta?

Bai, aspaldiko garaietako pelikula denean, dokumentatu beharra duzu, baina askotan errazagoa izaten da, dena egina dagoelako. Gaurko garaian kokatutako pelikuletan



El 47 pelikulan, lanean



“ **Gran Hermano moduko bat izaten da batzuetan gure bizitza, lantaldea beti elkarrekin...** ”



Karol Tornaria, eskuinean. Gaudi sarietarako beste izendatuekin batera ▲

ere bizitza eman beharra diozu, beti dago zer egina: pertsonaia bakoitzak look zehatz bat izan beharra du, ilea, edo azazkalak, makillajea, egon daiteke nekatuagoa edo ez, argalagoa edo ez... prozesu bat da, eta deus ez da kasualitatea, dena ongi pentsatuta dago.

Zuzendariarekin eta aktoreekin zer nolako harremana izaten duzue?

Nahiko harreman zuzena izaten dugu zuzendariarekin, eta aktoreekin ere bai, noski. Goizean goizetik haien atzetik ibiltzen gara, sekuentziaren arabera moldatu egin beharra ditugulako etengabe. Lan egun bakarrean pelikulako hilabete bat pasatu daiteke, beraz, batetik bestera jauzi egiten da eszenetan, egun osoa aldatzen ari gara. Gaur koleta, bihar trentza. Gaur ezpainak kolore batekoak, bihar beste batekoak. Eszena honetan kolpe bat duzu nonbait, edo... zenbait aktoreekin harreman oso ona izaten dugu, beste batzuekin agian gutxiago. Beste edozein tokitan bezala, hemen ere denetik dago, baina normalean hurbileko harremana da.

Zer gustatzen zaizu gehien zure lanetik?

Look-a topatzea da gehien gustatzen zaidana. Gidoi bat iristen denean eta aktoreak nortzuk diren jakiten dugunean, pentsatu beharra dugu fikzioko pertsona horiek nola egonen diren, zein musika entzuten duten, zein liburu irakurri, etxea nola duten apainduta... eta bakoitzari zein arropa jarri, zein koloretako ilea, makillatu edo ez eta nola, edo zein motako bizarra... konposizio hori guztia pentsatzea, sormen lan hori da gehien gustatzen zaidana.

Baduzu egitea egokitu zaizun lan kuttunen bat?

Hiru hilabetez Brasilera miniserie bat grabatzera joan ginenekoa oso esperientzia berezia izan zen. 'Descalç sobre la terra vermella' zuen izenburua, Eduard Fernandez zen aktore. Oso berezia izan zen, hiru hilabetez han, lantalde guztia erabat elkarrekin... gure bizitza Gran Hermano moduko bat da! (barreak). Esperientzia oso biziak dira, batzuetan gehiegi ere bai, Norbere espaziorako beharra ere izaten dugu batzuetan.

Goya sarietarako izendatua izan zinen *El 47* pelikulagatik. Zer nolako esperientzia izan da?

Horrelako zerbait bizitzen nuen lehenengo aldia izan da, eta tira, ongi pasatu genuen. Alabarekin joan nintzen, eta *El 47* pelikulako kide gehiago ere izendatuak zaudenez, taldetxoa geunden. Jakin bagenekien irabaztea zaila izan zela, akademiko gehienak Madrilgoak dira, gu Bartzelonatik gindoazen... baina gustura egon ginen, Richard Gere metro batera izan nuen, eta esan nuen, "begira, guapo dago!" (barreak).

Bartzelonan bizita ere, Ultzama-rekin eta Auzarekin harremanik mantentzen al duzu?

Bai, noski, harreman handia dut! Askotan etortzen naiz hona, familia osoa dut hemen, senarra ere Nafarroakoa dut... bai, gauza batengatik edo besteagatik, askotan etortzen gara, eta gustatzen zaigu. Auzako bestetara ere urtero etortzen gara. Bartzelonan oso kontent bizi naiz, lehen egunetik etxean bezala sentitu naiz, baina honekin ere lotura estua dut.

Imanol Olague: “Bide honetan zeinen ongi pasatzen ari garen konturatu gara”

Lizasoko Imanol Olague taldeko kideak azaldu digu Skabideanen azken diskoaren nondik norakoak. 2024an, lehenengo aldiz guztiz gelditu ziren eta geldialdi horren emaitza da *Hau errepikaezina izan da* haien bosgarren diskoa. Larrainzarren aurkeztu zuten otsailaren 28an, gertuko kontzertu oso pertsonal batean.

Lehenengo aldiz ere letrak sortu dituzte musika aurretik eta oso pozik daude esplorazio horrekin. Imanol Olague lizasozarrarekin eta taldeko kidearekin hitz egin dugu.

Disko honetan, lehenengo aldiz letrak idatzi dituzue lehenengo eta ondoren musika. Letrek garrantzi handiagoa hartu dute beraz? Zergatik?

Orain arte, gehienetan, lehenengo musika egin dugu eta musika horri letra egokitu diogu. Disko honetan kontrakoa egin dugu ia abesti guztietan. Lehenengo letra egin dugu eta gero musika bilatu dugu eta uste dut oso interesgarria izan dela. 2024an kontzerturik gabe egon ginen diskoa sortu nahi genuelako era lasai batean eta denbora gehiago izan dugu diskoa lantzeko. Era naturalean atera da horrela eta horrek ongi funtzionatu zuen. Gainera, letren sorreran taldeko partaide berriak izan ditugu, eta hori ere oso interesgarria izan da. Esperimentu moduko bat izan da, eta oso pozik gaude. Uste dut hemendik aurrera hortik jarraituko dugula.

***Hau errepikaezina izan da!* Izenburuak despedida bat iradoki lezake, baina, kontrara, biziberrituak zatozte, ezta? Taldearen ibilbideari eta zuen arteko harremanari aitormen bat egin nahi izan diozue? Zergatik momentu honetan?**

“**Letren sorreran taldeko partaide berriak izan ditugu, eta hori ere oso interesgarria izan da**”

Mundu guztiak esaten digu agurra ez ote den, baina inola ere ez. Diskoaren abesti baten izenburua da. Urteetan kontzertuekin astebururo hemendik harat ibili ondoren 2024an guztiz gelditzeko hautua

egin genuen, lehenengo aldiz. Gelditze horretan bizitako momentu guztiak etorri zaizkigu burura. Taldearen inguruan bizi izan ditugun gauzak eta esperientziak. Hortik idatzi dugu eta prestatu dugu disko hau. Agurra ez izan arren, gelditu eta atzera begiratu dugu, talde eta lagun gisa dugun historiari erreparatu diogu eta konturatu gara zeinen ongi pasatzen ari garen bide honetan! Hau errepikaezina izanen da eta noizbait bukatuko dela badakigunez, momentuz disfrutatu nahi dugu. Agurretik baino gehiago enfoke nostalgiko horretatik dator. Eta, bai, erabat biziberriturik gatoz. Aurten kontzertu pila ditugu eta topera gaude, oso pozik.



Elizondo lanbide eskola IIP

“Eskualdean eta euskaraz”

Ate irekiak:
Martxoak 31
16:00etan Euskaraz
17:00etan Gazteleraz

GOI MAILAKO ZIKLOAK

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritzari laguntza (Modularra)
- Haur Hezkuntza

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- Administrazio Kudeaketa
- Erizaintzako zainketa lagungarriak
- Natura inguruneko eta aisialdirako gidaria
- Mekanizazioa

OINARRIZKO LH

- Bulegoko Informatika
- Elementu metalikoen Fabrikazioa

LH BEREZIA

- Ostatu eta garbiketa arloko laguntzailea

Izen-ematea:
Apirilaren 2tik 11ra



Tel 848 431632



Martxoa, musikaz blai

Otsailaren amaiera eta martxoaren hasierako aste hauetan hiru kontzertu izanen ditugu Ostiral Kulturaletan: Skabidean, Ojos violeta eta Ibantuta. Eta gainera, bertso saio interesgarri bat eta bertako idazle baten lehen eleberriaren aurkezpena.

Otsailaren azken ostiralean musika hasi zen entzuten gure Larraintzarko Bentako aretoan eta martxoaren amaierara arte etengabe joko du. Skabidean taldearen kontzertua lehenengoa izan zen.



Ziurrenik irakurle askok ezagutuko dute taldea, inguruko musikariren bat baitago bertan. Skabidean taldeak kontzertu akustikoa eskaini zigun azken diskoko abestien aurkezpenean: **Hau errepikaezina izan da**. Skabidean taldearen estudioko bosgarren lana da. 17 kantarekin osatutako disko honek, hainbat estilo biltzen ditu, betiere, ska-reggaea ardatz nagusia izanda. Eta haien esanetan soinuaz gain, hizkiek garrantzia hartu dute lan honetan. Joan den otsailaren 28an egiaztatu ahal izan genuen.

Benetan kontzertu errepikaezina!

Ojos violeta

Musikarekin jarraituko dugu, aurreratu dugun bezala, eta martxoaren 7an kokatuko gara, martxoaren 8aren bezperan. Emakumearen



Nazioarteko Egunarekin lotutako jardueraren bat antolatzen dugu beti, eta kasu honetan OJOS VIOLETA taldea izan dugu. Amaia Azconak (gitarra, pianoa eta ahotsa) eta Maite Azconak (txirula, perkusioa eta ahotsa) osatutako musika taldea da Ojos Violeta. Eta gai feministak lantzen duten abestiek gogoeta piztu nahi dute entzuten dituztenengan. Hori da taldearen helburua.

Ibantuta

Eta **martxoaren 14an** beste kontzertu bat entzuteko aukera izanen dugu..., beno, entzuteko eta ikusteko, ikuskizuna, proiektzioa, kontzertua, bidaia... hori guztia- ren nahasketa bat delako. Ibantuta Iparraldeko musikari bat da, irakaslea ere bai, eta antzinako Zetaren Ibilbidea egin du bidaia batean, 12 herrialdetan zehar.






Ibilbide honetatik sortu zen **Zeta-
ren bideak musika hariak** diskoa, milaka urteko musika tradizioak omentzen dituen diskoa. Ikuski-zun paregabe honetan Ekialdeko instrumentu tradizionalekin jotzen du, eta grabatu dituen lekuetako bideoekin tartekatzen du. Kontzertu bat baino gehiago da, beraz, esperientzia sensorial eta emozionala, tradizioaren eta modernitatearen arteko zubia. Ez da erraza Iban-tuta ikustea gure artean. Gu zorte onekoak izan gara Larraintzarko ikastetxera tailer bat egitera etorri dela aprobetxatuz harrapatu dugulako. Mila esker, beraz, Larraintzarko irakasleei!

Mauro

Martxoaren 21ean, musika utzi eta liburu aurkezpen bat izanen dugu, tokiko idazle batena, gainera. *Mauro* da liburua eta egilea Mikel Guerenziain, Ziaurritzko idazlea. Hau da bere lehenengo eleberria eta Ezkabako gotorlekuko ihesaldiari buruzko istorio fikzionatua da. Liburua argitaratu berri da, eta harrera ona izaten ari da irakurleen eta kritikaren artean. Pulunpe honetan bertan aurkituko duzue berarekin egindako elkarrizketa bat. Adi ordute-



giari, 19:30ean hasiko delako aurkezpena, berriro ere Larraintzarko Bentan.

Bertso saioa

Eta hilabetea amaitzeko, bertso saio bat, leku berean, bi emakume bertsolarirekin: **Alaia Martin eta Miren Artetxe**. Biak, bertsolari ospetsuak. Alaia Martin, esate baterako, aurtengo Gipuzkoako txapelduna da. Eta haien bertsoez gozaten dugun bitartean mokadu bat dastatzeko aukera izango dugu. **Martxoaren 28an, 19:00etan.**

Eta ez dugu hilabete honetako erakusketa ahaztu nahi: Begoña Rastrillak zonaldeko artistak -eta zonaldeko modeloekin- erretratu batzuk erakutsiko dizkigu, bere pintzelada azkarrak eta kolore beteak erabiliz.



Irakurketaren aldeko manifestua

Liburu bat gomendatuz bukatuko dugu, kasu honetan **Irene Vallejo-ren Irakurketaren aldeko manifestua**, beraz, oso obra egokia liburutegitik proposatzeko. Irene Vallejo *El infinito en un junco* liburuaren egilea da, orain dela sei urte best-seller bihurtu zen liburua, nahiz eta nobela beltza, thrillerra, erromatarrei buruzko eleberri historikoa edo horrelako zerbait ez izan, baizik eta saiakera bat (eta liburuaren historiari buruzkoa! Meritu



handia du!). *El infinito en un junco* euskarara itzuli zuen Pamielak, Iruñeko argitaletxeak (*Infinitua ihi batean*) eta *Irakurketaren aldeko manifestua* liburuarekin gauza bera egin dute.

Liburu laburra da, *Irakurketaren aldeko manifestua*, hirurogei bat orri baino ez ditu izanen manifestu honek, inoiz baino beharrezkoagoa garai honetan -gezurren artean bizi garen garai honetan-. Hausnartzearen, solas egitearen, imajinatzearen eta, jakina, irakurtearen garrantzia aldarrikatzen du Vallejoren liburutxoak.

Kolaborazio hau ixteko, *Infinitua ihi batean* liburuan aipatzen den esaldi bat utziko dizuegu:

“Liburuak memoriaren aterpe dira, geure buruari begiratzeko ispilu, izan nahi dugunaren antz handiagoa baitugu haietan. Unibertso hauskor horiek dira gure indarra. Kontakizunez bilbatutako izakiak gara, ahotsen, historiaren, filosofiaren eta zientziaren, legeen eta elezaharren hariez brodatuak. Horregatik, irakurketak gu zaintzen jarraituko du baldin eta guk bera zaintzen badugu. Salbatzen gaituen hori ezin da desagertu”.

 Patxi Irurzun



2025eko ilbeltzean gure alderdian izan ziren jaiotza, ezkontza eta heriotzak:

Jaiotzak:

LANTZ

Unai Ziga Saldias, urtarrilaren 21ean sortu zen **Loperenean**. Gurasoak: Mikel eta Ainhoa.



“ Aupa bat gure gurasoei! ”

Ezkontzak:

Guk jakinik behintzat, hemengorik ez da inor ezkondu.

ULTZAMA

Eltzaburu

Lucia Etxenike Barberena, **Paskuale-neko** etxe-koandrea, ilbeltzaren 3an hil zen 92 urtetan.



▲ Lucia Etxenike

Teresa Ezkurra Erbiti, **Bentako** etxe-koandre zaharra, ilbeltzaren 17an hil zen 102 urtetan.



▲ Teresa Ezkurra

Heriotzak:

ANUE Aritzu

Maria Jesus Villanueva Ilarregi, **Apezetxeko** etxe-koandrea, ilbeltzaren 6an hil zen, 93 urtetan.



▲ Maria Jesus Villanueva

Galain

Felipe Beuntza Zia, **Etxeberriko** nagusia, ilbeltzaren 13an hil zen 83 urtetan.



▲ Felipe Beuntza

Gerendian

Rosa Oronoz Ibarra, **Perutxeneko** etxe-koandrea, ilbeltzaren 24an hil zen 98 urtetan.



▲ Rosa Oronoz

“ Beti izanen zaituztegu gogoan ”

MANTENTZE · LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

722 766 835

LIZASO · karikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com

erriGora

BESTE MODURA

Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko
oliba-olio birjina estra, kontserbak,
ardo, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz
etiketatuta eta jatorrizko prezioan

DENONA DA ONURA

Martxoak 10-26
errigora.eus

